

## Urrats berri bat EB Erkidegoentzat

2013ko Mundu Biltzarrak beste betekizun bat adostu zuen EB ikastagiria jasotzeko: EB irakasleei eskatzen zaie pornografiaren aurkako jarrera hartzea, eta horrekin lotuta dauden estutasunak asaskatzeko konpromisoa. Hau aurreranzko urrats garrantzitsua da EB Erkidegoetarako. Honek, gizarte orokorrean ere eragina badauka.

Edozein gizarte arrazionalerako oinarritzakoak dira emakumeen eta gizonen arteko harreman adimentsuak eta sakonak, eta euren arteko lankidetzak. Pornografia oztopo garrantzitsua da giza harreman arrazionalerako. Pornografian sexua bortizkeriarekin eta krudelkeriarekin lotuta dago, eta ekintza ez-gizatiarra bilakatzen da.

Pornografia geroz eta gehiago zabaltzen eta normalizatzen doa. Diruzalekeria eta sekulako irabaziak edukitzeko aukera da horren atzetik dagoena eta indartzen duena. Gaur egun, pornografia da etekin gehien sortzen duen dirubidea munduan. Orain interneten zabaltzen da, komunikabideetan eta pop kulturean, iragarkietan, aldizkarietan, filmetan, hoteletan, edertasun industrian eta indar armatuetan. Edonorentzat zapaltzailea da, bai zapalduta dauden taldeentzat eta bai zapaltzen duten taldeentzat. Oraindik ez dugu ondo ulertu ze kaltegarria izan den gizakientzat.

Sexu ustiaketa eta gizonen menderakuntza oinarritzakoak dira pornografiarako. Gehienetan, emakumeak eta neskek dira pornografia irudien jomuga. Arrazakeria eta klasismoa ere barnebiltzen ditu<sup>1</sup>. Irudiak askotan koloredun jendea sexualizatzen du, emakumeak batez ere. Eta sexu industriak langileriakoak eta txiroak diren emakumeak kontratatzen ditu eginkizun pornografikoak bete ditzaten. Gizonak ere jomugan ditu (Gay diren gizonak, gazteak edo kolorekoak). Horrek zapalkuntza asko indartzen ditu, gizonen zapalkuntza barne.

Pornografiak ber-subermatu eta manipulatu egiten ditu aurretik dauden sexu estutasunak eta bortizkeria grabaketak. Estutasun grabaketa berriak ere ezar ditzake, jende gaztearengan batez ere.

### SEXISMOA ETA GIZONEN MENDERAKUNTZA

Gizarte klasistak hasi zirenetik, emakumeen eta gizonen arteko harreman zapaltzailea gizarte hauen osagaia izan da (jendearen ustiaketa orokorrarekin zati gisa). Gizonak emakumeak menderatu zituzten. Emakumeen gorputza eta lana ustiatu egin zituzten. Emakumeak gizonen “ondasunak” ziren. Emakumeek ugalketan zuten rola izan zen emakumeen zapalketarako eta gizonen menderakuntzarako aitzakia.

Gizarte klasisten historian zehar, emakumeen zapalketak eta gizonen menderakuntzak itxura ezberdinak hartu dituzte. Ustiaketa sexuala emakumeen zapalketaren atal bat izan da aspalditik. Ustiaketa sexualak era hauek hartu zituen: bortxaketa eta hainbat indarkeria sexual mota, prostituzioa, eta sexuaren kontrola gizonaren aldetik, ezkontza barruan zein kanpoan. Honek horrela izaten jarraitzen du modu

bertsuetan eta baita berrietan ere. Gaur egun emakumeei bultzatzen zaie sexua gizonen plazererako egin dezaten, eta objektu sexualaren irudia ematearekin bat egin dezaten egokitzera behartzen zaie (Barbie panpinaren antza hartu, kirurgia plastikoa egitera behartu, arropa sexualizatuak jantzi, eta abar). Sexuabusoak, jazarriak eta erasanak izaten dira, euren etxean eta lantokian ere.

Emakumeen ustiaketa sexuala izan da zapalketa guztien parte bat, eta emakumeek objektu sexual bihurtzeak, zapaldutako pertsona guztiak objektu sexual izatera eramanez. Esklabotza garaian, gerraketan eta kolonizazioarekin eta genozidioarekin lotutako egoeretan historia luzea izan du sexu indarkeriak.

Nahiz eta emakumeen praktika sexualak modu askotarikoak izan diren, oro har onartzen direnak baino gehiago, normatzen hartu izan da sexuan emakumeek men egitea. Hori ohikoa da pornografia irudietan, bai aurkako sexu generoan zein berdinean. Emakumearen sexualitatea ez da bere zabaltasunean onartua izan, sexismoaren eta gizonen menderakuntzaren normetatik at.

*continuado . . .*



FINLAND • KAISLI SYRJÄNEN

## TRADUCCIONES

*continuado . . .*

1960ko hamarkadaren azkenaldian eta 1970eko hamarkadaren hasieran, emakumeen mugimenduak erronka eman zien emakumeen sexu ustiaketaren modu oinarrikoenei, mendebaldean behintzat. Jaiotza kontrolatzeko askatasunak, haurdunaldiari legezko amaiera emateak, eta sexu plazera bizitzeak erronka eman zien iraganeko arauak eta praktikei.

Hala ere, edertasunaren gurtza eta sexu industriak aurrerapen hauek sexismoaren era gaurkotuak bilakarazi dituzte. Orain, emakumeen “sexu askapenak” ordezkatzen du giza askapen erreala. Gaur egun emakumeen aurkako indarkeria, euren menderakuntza eta objektu sexual bihurtzea “askapentzat” eta desiragarritzat hartzen da.

“Askatasun sexuala” definitzen da, batez ere hedabideetan, sexua izatea “gizonezkoek bezala”. Honek esan nahi du gizonezkoen moldeetan eta gizonezkoen fantasia izoztuetan oinarritutako sexua. Emakumeei, batez ere emakume gazteei, hauspotzen zaie sexuaz gozatzera maitasun sentipenik edo konexiorik gabe, eta, hainbat kasutan, zapaltzaile rola erabiltzera sexuan. “Sexu askatasunak” eta “aukeratzeko askatasunak” egun esan nahi dute, “arruntak” direla edonorentzat pornografiaren oinarritutako praktika sexualak.



HAWKESHEAD, ANGLETERRE • SANDRA CARTER

Jendeak sentitzen du pornografia erabili nahi badu “aske” izan behar dela hori egiteko. Pertsona askok pentsatzen du ez litzatekeela mugarik egon behar industria honetarako.

Pornografiarako merkatu berriak egunero ari dira garatzen, gero eta gazte jende gehiago jomugan jarriaz. Gero eta gehiago ematen dira indarkerian eta ustiaketan oinarritutako emanaldi ikusgarri eta ber-subermagarriak. Indarkeria eta bortxaketa irudiak gero eta gehiago eta sarriago “garrantzirik gabekotzat” hartzen ari dira. Aldi berean, gero eta nabarmenago gelditzen ari da pornografiaren erabilerak eta nagusitasunak sakon eragiten diela pertsonaren bizitza sexualari eta bizitza ez sexualari.

### GIZONEN ZAPALKETA ETA GIZONEN MENDERAKUNTZA

Nahiz eta gero eta emakume gehiagok erabiltzen duen pornografia, gizonak kontsumitzaile handienak izaten jarraitzen dute. Gizonak zaurgarriak dira, bereziki, zapalduak izan diren moduagatik. Gizonen zapalketaren oinarria da asaskatze prozesurako sarbidea oso goiz eta modu basatian ukatu izana, eta baita giza kontaktu hurbil, samur eta arretatsua ukatu izana ere. Nabaria da ere, mutil gazte gehienak sexualki abusatuak izaten direla.

Gizonei irakasten zaie gertutasuna sexuaren bidez bakarrik eduki ahal dutela, eta aldi berean, ez daukatela gertutasun beharrik sexua egiteko. (Zoritxarrez, gizonen “abantailak” lortu nahian, emakume askok ere hartu dute ikuspegi hori.) Gizonek, zapaltzen zaien moduagatik, pentsatzen dute sexuarekin duten kezkarik, bakardade eta etsipen sentimenduei sexuaren bidez bakarrik “aurre” egin ahal dietela. Gainera, gizonak indarkeriaren eta leia lartzaren menpean daude, soldaduskan ere bai. Sarritan, euren minen ondorioz, menderatzaile gisa jokatzeko dute, batez ere emakumeekin, baina baita beste gizonekin ere. Pornografia trebakuntza gisa erabiltzen dute sexu ustiataile bilaka daitezkeen. Eta pornografiaren idealizazioa dela, eta interneten gero eta azkarrago eta gehiago azaltzen dela kontuan harturik, ia ezinezkoa egiten zaie gizonei pornografia ez erabiltzea.

Neurri batean, gizonak lotsa, erruduntasuna eta umilazio sakona sentitzen dituzte, gehien maite dituzten pertsonak gaizki tratatzera bultzatzen dituzten estutasunak edukitzearen, eta honek areagotzen du pornografiari kontraesana emateko eta asaskatzeko duten zailtasuna.

### ELKAR-ENTZUTE BALIABIDEAK

Elkar-entzutearen bidezko Berrebaluatzea teoriara eta praktikara sarbidea izanik, jendea aska daiteke dituzten estutasun grabaketengandik, pornografiarekin lotuta daudenak barne. Pornografiaren dagoeneko lan ona eginga dago: sexu oroitzen goiztiarretan, gay askapenean, gizonen eta


emakumeen lantegietan. Oraindik, EB Erkidegoek ez daukate nahikoa baliabide jendearekin pornografiari buruz lan osoa eta eraginkorra egiteko. Gu denok, eta EB erakusleek hain zuzen, entzuteko abilezia garatu beharra daukagu nahikoa ziurtasun eta trebetasun lortzeko.

### GIZONEN LANA PORNOGRAFIAN

Pornografiari buruzko lanean, gizonentzako abiapuntua da konturatzea: gizonak (ez eta emakumeek ere) ez dutela gaitzespenik merezi pornografia erabiltzearen. Oso zaila izango litzateke, 1970etik geroztik jaiotako edozein gizonentzat, pornografiarekin bizipenen bat ez eduki izana. Inori ezin zaio errurik bota pornografia erabiltzearen. Hala ere, denok har dezakegu erantzukizuna pornografiarekin lotuta dauden estatusunetatik askatzeko.

Gizona baldin bazara, hona hemen pornografiari buruz lan egiteko proba ditzakezun ideia batzuk:

- Gizonen ontasunari eta zureari buruz asaskatu.
- Ohartu eta asaskatu pornografia erabiltzeari buruzko edozein lotsa edo erruduntasun sentimenduak.
- Sexu oroitzapen goiztiarrei buruz asaskatu.
- Gogoratu zein izan zen pornografia ikusi zenuen lehen aldia. Zein izan zen ingurumaria? Nola sentitu zinen?
- Lan egin zure pornografiaren historiari buruz.
- Galdetu zeure buruari pornografiak zure bizitzan ze eragin izan duen. Asaskatu eta erronka eman ondorengoari: pornografia erabiltzen ari baldin bazara, zure jokaera sexista da. (Pornografia emakumeen irudi sexistek osatzen dute, neurri handi batean.)
- Asaskatu emakumeen gorputzak arrazionalki estimatzeari buruz.
- Baloratu zeure burua ematen duzun edozein urratsengatik, oso txikia dela sentitzen baduzu ere. Helburua da emakumeekiko erabateko begirunea eta kontzientzia izatea eta pornografiaren edozein modutako erabilerari uzteko konpromisoa hartzea, eta hau epe-luzeko egitasmoa izan daiteke.
- Pornografia erabiltzen baduzu, zu garrantzikiotzat zaituzten pertsonekin hitz egin horretaz. Pornografia erabiltzen dutenen ohiko jarrera izaten da euren jarduera, eta nola izan diren minduak, ezkutetzea. Ez dira konturatzen, zenbaterainoko kaltegarria den hori besteentzako. Onerako izan daiteke zure EB irakasleari, Gune Erreferentzia Pertsonari eta elkar-entzuleari esatea pornografia erabiltzen duzula. Eta baliteke elkar-



INDIA • MAURA FALLON

entzule bat baino gehiago behar izatea pornografiari buruz eraginkorki lan egiteko. Garrantzitsua izan daiteke ere, zure sexu bikoteari (bikoteei) azaltzea zure pornografiaren erabilera, eta konpromisoa hartu duzula zure burua hortik eta horrekin lotuta dauden estatusunetatik askatzeko jakinaraztea.

### EMAKUMEEN LANA PORNOGRAFIAN

EBko emakumeek, pornografiari buruz lan egiteko orduan, ziurtasuna ezartzeko aukera daukagu, guretzat eta gizonentzat. Aldi berean, ez daukagu gure estatusunen “gaintik jauzi” egin beharrik gizoni entzuteko; lehenbizi geure estatusunei buruz lan egin behar dugu. Denok jasoko ditugu onurak sexuarekin eta sexismoarekin lotutako historiari buruz asaskatzen badugu.

Ez da onuragarria gizonak “zaintzea”. Alderantziz, gutaz harro egon gaitzke eta ardura hartu. Espero dezakegu gizonak, benetako lagun gisa, gurekin elkartzea sexismoa, gizonen menderakuntza eta pornografia deuseztatzeko.

Pornografia erabili ez duzun emakumea baldin bazara, hona hemen pornografia lantzen lagun zaitzaketen galdera batzuk:

- Nola eragin dizu pornografiak? Zein da zure harremana berarekin? Zein da zure historia berarekin?
- Nola sentitzen zara pornografiaren inguruan? Ikaratuta? Sorgortuta? Lasaituta gaztea ez zarelako jada (arrunta emakume helduetan)? Gai hau zeharo

*continuado . . .*

## TRADUCCIONES

continuado...

saihestu nahi al duzu? Sentimendu hauek lotuta daude, seguruenik, zure sexuaren eta sexismoaren historiarekin.

- Nola sentitzen zara pornografia erabiltzen duten gizonekiko?
- Nola izango zen gizon bati galdetzea pornografia erabiltzen ote duen? Zeri aurre egin beharko zenioke eta asaskatu hau egiteko? Zer landu beharko zenuke pornografia erabiltzen duen gizon batentzat baliabide izan zaitezten? Pentsatu zure bizitzako gizon bati, edo gizonezko elkar-entzule bati, laguntza eskaintzeari buruz bere mendekotasuna utz dezan.
- Gai ezkututzen ari al zara? Gutako askok ezkututzen ditugu gure fantasia sexualak, batez ere biktima izaten garenak edo papera aldatu eta zapaltzaile izaten garenak. Ezkutatu eta isilpean gordetzeari buruz asaska dezakegu, edozein lotsa barne.
- Zein da zure fantasia sexualen edukia? Pornografiarengandik zerk “erakartzen” zaitu? Zu, emakume askatu gisa, pornografiak erakartzea ezegokia dela sentitzen baduzu, asaska ditzakezu horren inguruan daukazun sentimendu guztiak.
- Zeintzuk dira zure sentimenduak biktima izateari buruz? Emakumeak, ulergarria den bezala, pornografiaren biktimak sentitzen dira.

Pornografia erabili duzun emakumea baldin bazara, hona hemen iradokizun batzuk:

- Erabil itzazu pornografia erabili ez duten emakumeentzako, eta gizonentzako aurretik azaldutako ideia asko.
- Zure ontasunari buruz lan egin. Emakume osoa izateari buruz lan egin. Asaskatu sexu oroitzapen goiztiarrei buruz eta fantasia sexualeri buruz. Asaskatu pornografiarekin izan duzun historiari buruz, ohartu zinen lehenengo aldiaz eta horrek ber-subermatu zizuna barne.



ISRAEL • RANDI FREUNDLICH

- Emakumeak, normalean, pornografia irudietan biktima bezala islatzen dira. Asaskatu irudi hauek ber-suberma ditzaketen bizipenak. Ohar zaitez emakumeek menderatzaile paperean azaltzen diren irudien inguruan dituzun sentipenei buruz.

- Hitz egin pornografiak zure bizitzan izan duen eraginari buruz.

### EMAKUMEENTZAT ZEIN GIZONEZ-KOENTZAT

Pornografiari buruz lan eraginkorra egiteko baldintzak sor ditzakegu gure

Erkidegoetan. Horretarako, pornografia erabiltzen duen inori buruz marmarrean aritzea saihestu beharra daukagu. Ezin dugu inoren izenik erabili edo beste edozein identitaterik, ez du axola gure iraganeko pertsona bat izan edo orainaldian ezagutzen dugun pertsona bat izan.

Pornografian egiten dugun lanari buruz, EBn argitaratzeko artikulua idazten ditugunean, goitizenaekin edo izenik gabe idatzi behar ditugu.

EBko hainbat erakusle izan dira aitzindari pornografiari buruzko lanean. Nire ezker ona adierazi nahi diet Joan Karp, “David Nijinsky”, “Jeanne D’Arc”, eta Teresa Enrico-ri<sup>2</sup>. Orain daukagu aukera euren lana zabaltzeko, EB Erkidegoetan barrena.

Pornografia eta bere ondorioak deuseztatzeko erronkak ematen digu beste aukera bat gure osotasuna zeharo berreskuratzeko. Hori erabil dezakegu, gizon eta emakume bezala, gure artean bidezkoa den lankidetzara aldarrikatzeko, eta baita gure gizatasun osoa aldarrikatzeko ere.

*Diana Balsler*

*Emakumeen Askapenerako Nazioarteko Erreferentzia Pertsona  
Jamaica Plain, Massachusetts, AEB*

*Anna Van Heeswijk, K Webster,  
“Jeanne D’Arc”, “David Nijinsky”  
eta Barbara Hardwood-ri eskerrak emanaz  
euren euskarriagatik eta pentsamendu onengatik*

Itzulpena: *Juan Gabriel Urriategi*. Antzuola 2014ko urtarrila  
Berrikuspena: *Xabi Odriozola*, Uztegi 2014ko urtarrila